



INFORMACIÓN  
BBK SAIOA  
GORABIDE  
INFORMAZIOA

Un servicio para  
todas las familias  
Familia guztientza-  
ko zerbitzu bat

pg. 4 or.



Educación  
afectivo-sexual  
Hezkuntza  
afektibo-sexuala

pg. 5 or.



Gestión aprobada  
por la asamblea  
Batzarrek onartu-  
tako kudeaketa

pg. 7 or.

## Cinco nuevas áreas de innovación



## Berrikuntzako bost arlo berri



Ofrecemos ocho plazas para  
el programa de apoyo a la  
calidad de vida familiar (pg. 6)

Familia bizitzaren kalitatea  
laguntzeko programarako 8  
plaza eskaintzen ditugu (6. or.)



## Bost arlo berri txertatu ditugu gure berrikuntza agendan

*Irisgarritasun kognitiboa, familientzako eskaintza, bete gabeko beharrentzako eta elkarte biziberritzeko ekintza berriak, gure bederatzi proiektuez gain*

2016-2019 aldirako martxan jarri dugu Gorabideren laugarren Plan Estrategikoa, eta gure berrikuntza agendak hamalau proiektu ditu, gehitu egin baititugu irisgarritasun kognitiboa, biziberritzea eta elkartean parte hartzea, adimen desgaitasun arina, jokabide

disruptiboak edo gaixotasun mentala dutenen beharrei ekiteko plana, eta Berrikuntzaren onuradun modura sartuko dituzten zentroetako (egoitza, etxebizitza, eguneko eta aisialdiko zentroak) erabiltzaileak ez diren pertsonak.


Etapa estrategiko berri honetan, jarduteko beste bost arlo gehitu zaizkie Gorabiden dauden bederatzi proiektuei. Irisgarritasun kognitiboaren arloan, ebaluatu egingo da elkarlanerako proposamenak sortzeko ingurunea adimen desgaitasuna dutenen erakundeen eta entitateen arteko harremanak hobetzeko, eta sentsibilizazio jarduerak egiteko ere bai. Adimen desgaitasun arina dutenen beharrei dagokienez, lan egingo da identifikatzeko zeintzuk diren kolektibo horren intereseko gaiak, zein inguruetan eskaini daitezkeen eta boluntariora izateko aukera. Jokabide disruptiboak edo gaixotasun mentala duten erabiltzaileei dagokienez, kolektibo horren beharrei erantzuteko beste bide batzuk erabiliko dira, irtenbide pozgarriak eta egokiak izateko.

Familia eta erabiltzaileentzako eskaintzari dagokionez, birformulatu egingo dira alderdi batzuk parte hartzea hobetzeko, jarduerak familia gehiagorengana hurbiltzeko eta kezka berriei behar edo profiei hobeto erantzuteko. Elkarte mugimendua biziberritzeari dagokionez, familiako partaide-sentimendua sus-

tatuko da, inplikazio gradu desberdinak eskainiko dituzten aukeren bidez. Proiektu berri hauek gehitu zaizkie lehendik daudenei: komunikazio eraginkorra, sexualitatea, dolua, pertsona ardatz duen plangintza, zahartzea, familiaren bizi kalitatea, intereseko taldeen prestakuntza adimen desgaitasuna dutenen partetik eta erabiltzaileek zerbitzuekin eta berrikuntzarekin duten gogobetetasuna.

### 260 pertsona baino gehiago

Gure berrikuntza agendak hausnarketa prozesuak eta esperientziak sortzen ditu, ikuspegi zabala du, erabiltzaileak parte hartzaile bihurtzen ditu, gauzak egiteko modu berri eta desberdinak identifikatzeko laguntzetan hobekuntzak egiteko eta balio erantsia sortzeko. Oinarri horrekin, bederatzi proiektu zabaldu dira 2012tik, 260 pertsona izan dira onuradunak, elkartearen 26 zentro eta zerbitzutan. Orain arte, proiektuen onuradunak izan dira egoitza, etxebizitza, eguneko zentro edo aisialdiko klubetako erabiltzaileak, baina berrikuntzako agenda berriak zentroetako erabiltzaileak ez diren pertsonak ere kontuan hartzen ditu.



Gorabidek agenda bat du eta bertan erabakitzen du nola egin gauzak hobeto.

Agenda horrek lehen 9 proiektu zituen. Orain 14 ditu. Hauek dira proiektu berriak: Inguruzten gaituen informazioa hobetzea, elkar hobeto ulertzeko; familientzako eskaintza berria; adimen desgaitasun arina, jokabide arazoak edo buruko gaixotasuna duten pertsonak artatzea eta familiekin elkartean parte hartze handiagoa izan dezatela.

## Incorporamos cinco nuevas áreas a nuestra agenda de innovación

*Accesibilidad cognitiva, oferta para familias, nuevos abordajes ante necesidades no cubiertas y revitalización asociativa se suman a los nueve proyectos existentes*

Con la puesta en marcha del cuarto Plan Estratégico de Gorabide para el periodo 2016-2019, nuestra agenda de innovación pasa a tener catorce proyectos, al incluir la accesibilidad cognitiva, la revitalización y participación asociativa, el abordaje de necesidades de personas con dis-

capacidad intelectual ligera, conductas disruptivas o diagnóstico de enfermedad mental, y la reformulación de la oferta para familias. Además, incorporará como beneficiarias de la innovación a las personas no usuarias de centros (residencias, viviendas, centros de día y tiempo libre).

En esta nueva etapa estratégica, se han sumado cinco áreas de actuación a los nueve proyectos de innovación existentes en Gorabide. En el ámbito de la accesibilidad cognitiva se evaluará el entorno para generar propuestas colaborativas de mejora entre personas con discapacidad intelectual e instituciones y entidades, así como realizar actividades de sensibilización. En lo que respecta a las necesidades de personas con discapacidad intelectual ligera, se trabajará para identificar temas de interés para ese colectivo, los entornos en los que poder ofertarlos y la posibilidad de contar con voluntariado. En lo referente a personas usuarias con conductas disruptivas o enfermedad mental, se desplegarán nuevos abordajes ante las necesidades de este colectivo, que permitan aportar soluciones satisfactorias y adecuadas.

En cuanto a la oferta dirigida a familias y personas usuarias, se reformularán algunos aspectos para mejorar la participación, acercar las actividades a más familias y responder mejor a nuevas inquietudes, necesidades o perfiles. Y en un plano de revitalización del movimiento asociativo, se fomentará el sentido de pertenencia a

la asociación a través de diversas opciones que supongan diferentes grados de implicación. Estos nuevos proyectos se suman a los destinados a comunicación eficaz, sexualidad, duelo, planificación centrada en la persona, envejecimiento, calidad de vida familiar, formación a grupos de interés por parte de personas con discapacidad intelectual y satisfacción de las personas usuarias con los servicios y con la innovación.

### Más de 260 personas

Nuestra agenda de innovación genera procesos de reflexión y experiencias, con perspectivas abiertas, en los que hace partícipes a personas usuarias, para identificar formas nuevas y diferentes de hacer las cosas que permitan mejorar y generar valor añadido en los apoyos. Con esa premisa, se han desplegado nueve proyectos desde 2012, que han beneficiado a más de 260 personas, en 26 centros y servicios de la asociación. Hasta ahora, los proyectos han beneficiado a personas que utilizaban residencias, viviendas, centros de día o clubes de tiempo libre, pero la nueva agenda de innovación incorpora también a personas no usuarias de centros.



**información **bbk** SAIOA GORABIDE informazioa**

## Un servicio para todas las familias

### Servicio BBK SAIOA GORABIDE: ¿Qué ofrece?

- **Acogida y apoyo inicial:** Primer contacto con la persona con discapacidad intelectual y su familia para entrar a formar parte de Gorabide. Diagnóstico de discapacidad y diagnóstico social.
- **Información permanente:** sobre recursos, servicios, prestaciones, pensiones, ayudas o legislaciones existentes, generales y especializadas (dependencia, discapacidad, precios públicos, ISNA, familia numerosa, modificación de la capacidad legal y tutela, tramitación de justicia gratuita, etc.).
- **Orientación personalizada:** Proporcionando las propuestas y soluciones que más se adapten a los deseos, modo de vida y expectativas tanto personales como familiares. Realizando para ello las entrevistas y encuentros que sean precisos en los diferentes entornos, que permitan un amplio conocimiento de la persona con discapacidad y su familia.
- **Apoyo, seguimiento y acompañamiento:** A lo largo de todo el ciclo vital, prestando especial atención a momentos de transición; situaciones urgentes (atención residencial temporal, situaciones de desprotección y riesgo, etc.); o trámite de los procedimientos administrativos necesarios para acceder a todo tipo de servicios y recursos públicos y privados.

### Quién forma el servicio BBK SAIOA GORABIDE

Cinco **trabajadoras sociales**, Marga Arias, Cristina Mendieta, Esther Plaza, Amaia Sáenz de Ugarte y Arrate Urizarbarrena, que atienden una en cada una de las cinco zonas geográficas de Bizkaia; un **psicólogo**, Enrique Aja, una **psicóloga**, Tania Pereda, un **médico-psiquiatra** José Pérez Agote, una **médico-rehabilitadora**, Blanca Guinea, una **administrativa**, Naroa Otaolea, y el **director** del servicio, Manuel Martínez.

### Cómo contactar con BBK SAIOA GORABIDE

Centro Ola BBK  
Goietxa bidea nº 18 - 48150 Sondika  
administracionsaioa@gorabide.com  
Teléfono: 94 453 90 86

Servicio  
**BBK SAIOA GORABIDE**  
Zerbitzua  
**Tel. 94 453 90 86**

## Familia guztientzako zerbitzu bat

### BBK SAIOA GORABIDE zerbitzua: Zer eskaintzen du?

- **Lehenengo harrera eta laguntza:** Lehenengo kontaktua adimen desgaitasuna duenarekin eta haren familiarekin, Gorabideko kide izan daitezen. Desgaitasun diagnostikoa eta diagnostiko soziala.
- **Etengabeko informazioa:** baliabideak, zerbitzuak, prestazioak, pentsioak, indarrean dauden lege eta laguntzak, orokorrak eta bereziak (mendekotasuna, desgaitasuna, prezio publikoak, ISNA, familia ugaria, legezko gaitasuna eta tutoretza aldaketa, doako justizia, etab.).
- **Orientazio pertsonalizatua:** Proposamen eta irtenbide egokienak eskainiko dira, kontuan izanik euren nahiak, eta euren bizimodua eta itxaropenak eta familiakoenak. Horretarako, behar beste elkarrizketa eta topaketa egingo dira ingurune desberdinetan, ondo ezagutu ahal izateko adimen desgaitasuna duena eta bere familia.
- **Babesa, jarraipena eta laguntasuna:** Bizi-ziklo guztian zehar, trantsizio uneetan arreta berezia jarrita; premiazko egoeretan (egoitzan aldi baterako artatzea, babes gabeko edo arrisku egoerak, etab.); prozedura administratiboen tramiteak egiteko, zerbitzu eta baliabide publiko edo pribatuetara sarbidea izateko.

### BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuko kideak

Bost **gizarte langile**, Marga Arias, Cristina Mendieta, Esther Plaza, Amaia Sáenz de Ugarte eta Arrate Urizarbarrena, Bizkaiko bost eremu geografikoetan arreta eskaintzen dutenak; **bi psikologo**, Enrique Aja eta Tania Pereda; **mediku-psikiatra** bat, José Pérez Agote; **errehabilitazioko mediku bat**, Blanca Guinea; **administrari** bat, Naroa Otaolea, eta zerbitzuko **zuzendaria**, Manuel Martínez.

### Nola kontaktatu BBK SAIOA GORABIDEREkin

Ola BBK Zentroa  
Goietxa Bidea, 18 - 48150 Sondika  
administracionsaioa@gorabide.com  
Telefonoa: 94 453 90 86

# Talleres de educación afectivo-sexual

**Seis sesiones para personas usuarias y dos para familias favorecerán el desarrollo de la afectividad y la sexualidad de las personas con discapacidad intelectual de Gorabide**

En los próximos meses, las personas usuarias de Gorabide podrán participar en un programa de educación sexual para poder conocerse, aceptarse y expresarse positivamente en la dimensión sexual. Serán seis sesiones independientes que abordarán temas y contenidos diferentes para distintos perfiles, de manera lúdica y participativa, según las características de cada grupo y de cada persona. Igualmente, las familias tendrán dos talleres sobre afectividad y sexualidad: uno sobre personas adultas y otro sobre jóvenes y adolescentes.

La primera sesión para personas usuarias será el 28 de abril y tratará sobre el amor. Las jornadas para familias serán los días 27 y 28. El resto de talleres abordarán temas como el conocimiento de los sentimientos, la diversidad sexual, la propia aceptación, la expresión de la sexualidad o las relaciones en pareja. Al ser sesiones independientes, cada persona puede apuntarse a las que quiera.

## Más información e inscripciones:

dianacabezas@gorabide.com  
javibengoa@gorabide.com  
Tel. 94 443 12 10.



Hemos organizado seis talleres para hablar sobre amor, sentimientos, deseos sexuales diferentes, relaciones de pareja o cómo aceptarnos y cómo expresar la sexualidad. Cada persona usuaria puede apuntarse a los que quiera.

FECHA	TEMA	PERFIL	LUGAR	HORARIO
28 de abril	El amor	General	Gorabide	18:00-20:00
25 de mayo	Conocernos	Adolescentes	Bolunta	18:00-20:00
23 de junio	Diversidad	Gays-lesbianas	Bolunta	18:00-20:00
29 de sept.	Aceptación	General	Gorabide	18:00-20:00
20 de oct.	Expresión	General	Gorabide	18:00-20:00
24 de nov.	Pareja	Parejas	Bolunta	18:00-20:00
27 de abril	Adultos/as	Familias	Bolunta	18:00-20:00
28 de abril	Jóvenes	Familias	Bolunta	18:00-20:00

## Hezkuntza afektibo-sexualari buruzko tailerra

**Sei saio erabiltzaileentzat eta bi familientzat Gorabideko adimen desgaitasunen duten pertsonen afektibitatearen eta sexualitatearen garapena hobetzen lagunduko dute**

Datozen hilabeteetan, Gorabideko erabiltzaileek sexu hezkuntzako programan parte hartu ahal izango dute, euren burua ezagutu, onartu eta modu positiboan espresatzeko sexu dimentsioan. Sei saio independente izango dira eta profil desberdinentzako gai eta eduki desberdinak landuko dira, modu ludiko eta parte hartzailean, talde eta pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera. Era berean, familiek afektibitate eta sexualitateari buruzko bi tailer edukiko dituzte: bata, helduei buruzkoa eta bestea, gazte eta nerabeei buruzkoa.

Erabiltzaileentzako lehenengo saioa maitasunari buruzkoa izango da, apirilaren 28an. Familientzako jardunaldiak 27an eta 28an izango dira. Beste tailerretan honelako gaiak landuko dira: sentimenduak ezagutzera, sexu

aniztasuna, norbere burua onartzea, sexualitatearen adierazpena eta bikote harremanak. Saio independentiak direnez, pertsona bakoitza nahi duen bestetara apunta daiteke.

## Informazio gehiago eta izena ematea:

dianacabezas@gorabide.com  
javibengoa@gorabide.com  
Tel. 94 443 12 10.



Sei tailer antolatu ditugu gai hauei buruz hitz egiteko: maitasuna, sentimenduak, sexu-desira desberdinak, bikote harremanak, nola onartu geure burua eta nola eman aditzera sexualitatea. Erabiltzaile bakoitzak nahi dituenak egin ditzake.

# Ofrecemos ocho plazas para trabajar por mejorar la calidad de vida familiar

*Un año más, nuestro Programa de Apoyo a la Calidad de Vida Familiar permite a las familias mejorar sus competencias familiares y su sentido de bienestar*

Gorabide ofrece a sus familias la posibilidad de participar en nuestro Programa de Apoyo a la Calidad de Vida Familiar con el objetivo de encontrar aspectos de mejora en la vida de toda la familia y comprometerse a trabajarlos, con una metodología que permite participar a todos los miembros, lo que abre nuevas posibilidades de acción y permite afrontar cuestiones que, de otra forma, se hacen muy complejas de manejar.

El programa consiste en tres o cuatro encuentros de la familia en su conjunto con la trabajadora social o el psicólogo que dinamizan el programa, en los que se evalúa la situación familiar y sus necesidades, y se elabora un plan de apoyo que mejore tanto sus competencias familiares



como su sentido de bienestar. Los aspectos que las familias más buscan mejorar son: interacción familiar, organización y habilidades parentales, e inclusión y participación social. Las familias que estén interesadas

en participar en este programa pueden apuntarse llamando a nuestro servicio BBK SAIOA GORABIDE (teléfono 94 453 90 86). La adjudicación de plaza se hará por orden de inscripción.

## Familiaren bizi kalitatea hobetzen lan egiteko zortzi plaza eskaintzen ditugu

*Aurten ere, Familiaren Bizi Kalitatea Babesteko Programak familiei aukera ematen die euren familia gaitasunak eta ongizate zentzua hobetzeko*

Gorabidek aukera ematen die familiei Familiaren Bizi Kalitatea Babesteko Programan parte hartzeko, helburua delarik familia guztia-  
ren bizitzan hobetzeko arloak aurkitzea eta lantzeko konpromisoa hartzea. Daukagun metodologiak aukera ematen die familiako kide guztiei parte hartzeko, horrek ekin-tzarako bide berriak zabaltzen ditu eta beste era batera tratatzeko zai-

lak diren arloak lantzeko aukera ematen du.

Programan, hiru edo lau topaketa egiten ditu familia osoak programa dinamizatzen duen gizarte langilearekin edo psikologoarekin, familiaren egoeraren eta beharren ebaluazioa egiten da, eta, ondoren, laguntzeko plan bat egiten da, familia gaitasunak eta ongizate zentzua ho-

betzeko. Familiek gehien hobetu nahi izaten dituzten arloak hauek dira: Familiako interakzioa, antolaketak eta gurasoen trebetasunak, eta gizarteko inklusioa eta parte hartzea. Programa horretan parte hartu nahi duten familiek izena eman dezakete BBK SAIOA GORABIDE zerbitzura dei eginda (telefonoa: 94 453 90 86). Izena eman ahala esleituko dira plazak.



## La Asamblea aprueba la gestión de 2016 y los planes para 2017

La Asamblea General de socios y socias de Gorabide aprobó la gestión y los resultados financieros de 2016, los planes y el presupuesto de 2017, y una cuota de 71 euros para 2017. Igualmente, facultó a la junta directiva a vender un local en Mungia y a gestionar la incorporación de Gorabide a Aedis (entidad promovida por Plena Inclusión).

El presupuesto de 2017 prevé gastos por 32.434.866,73 euros, de los que 23.302.119,27 euros se desti-

## Batzarrak 2016ko kudeaketa eta 2017rako egitasmoak onartu ditu

Gorabideko bazkideen Batzar Nagusiak onartu egin zituen 2016ko kudeaketa eta finantza emaitzak, 2017rako planak eta aurrekontua, eta 2017rako 71 euroko kuota. Era berean, zuzendaritza batzordeari eskumena eman zion Mungiako lokal bat saltzeko eta Gorabide Aedis (Plena Inklusioek sustatutako entitatea) elkartzean sartzeko prozesua kudeatzeko. 2017ko aurrekontuan, 32.434.866,73 euroko gastuak daude aurreikusita, horietatik 23.302.119,27 euro langileei zuzen-



Los socios y las socias de Gorabide han votado a favor de lo que se hizo el año pasado y de lo que se va a hacer este año. También dieron permiso para vender un local y para que Gorabide forme parte de Aedis.

nan a personal, frente a unos ingresos de 31.609.598,81 euros, lo que supone una previsión de déficit para 2017 de 825.267,92 euros.



Gorabideko bazkideek iaz egindakoaren eta aurten egingo denaren aldeko botoa eman dute. Lokal bat saltzeko baimena ere eman dute eta Gorabide Aedis parte izan dadin ere bai.

dua egongo da. Sarrerak, ordea, 31.609.598,81 eurokoak dira; beraz, 2017rako 825.267,92 euroko defizita aurreikusten da.

## LABURRAK BREVES

### Accesibilidad cognitiva

En abril, iniciamos dos actividades para fomentar la accesibilidad cognitiva, con participación de personas con discapacidad intelectual: en la fábrica social para la cultura Astra de Gemika y en la web del Gobierno Vasco Irekia.

### Irisgarritasun kognitiboa

Apirilean, irisgarritasun kognitiboa hobetzeko bi jarduera egiten hasiko gara, eta adimen desgaitasuna dutenek hartuko dute parte: Gemikako kulturarako fabrika sozialean, Astran, eta Eusko Jurlaritzako Irekia webean.

### Charlas de empleo

Lantegi Batuak ofrecerá dos charlas sobre opciones laborales para personas con discapacidad intelectual: una dirigida a familias de Gorabide (mayo) y otra para personas usuarias (noviembre).

### Lanerako hitzaldiak

Lantegi Batuak bi hitzaldi eskainiko ditu adimen desgaitasuna duten pertsonentzako lan aukerei buruz: bat, Gorabideko familientzat (maiatzean) eta beste bat, erabiltzaileentzat (azaroan).

### Día del Accionista de Iberdrola

Un grupo de personas usuarias y monitoras de nuestro Servicio de Tiempo Libre repartieron los obsequios que Iberdrola entrega a sus accionistas en su junta anual.

### Iberdrolaren Akziodunen Eguna

Erabiltzaile talde batek eta gure Astialdi Zerbitzuko monitoreek banatu zituzten Iberdrolak akziodunei urteroko batzarrean ematen dizkien opariak.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkarte da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.



**Nuestra Residencia Arangoiti de Gueñes participó en la organización de un concierto del grupo 'Mi Dulce Geisha' en la Kultur Etxea de Sodupe.**

**Gure Gueñeseko Arangoiti Egoitzak parte hartu zuen 'Mi Dulce Geisha' taldearen kontzertua antolatzen, Sodupeko Kultur Etxean.**



# agenda abril apirila

**JARRAI IEZAGUZU!**
**¡SÍGUENOS!**

**AUTOGESTORES  
AUTOGESTOREAK**
**JÓVENES**

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2° (Bilbao)  
**Día** 11 martes **Hora** 18:00  
**Eguna** 11 asteartea **Ordua** 18:00

**LOS VETERANOS**

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2° (Bilbao)  
**Día** 26 miércoles **Hora** 18:00  
**Eguna** 26 asteazkena **Ordua** 18:00

**LOS NUEVOS**

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2° (Bilbao)  
**Día** 10 lunes **Hora** 18:00  
**Eguna** 10 astelehena **Ordua** 18:00

**LOS ELEGANTES**

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2° (Bilbao)  
**Día** 26 miércoles **Hora** 18:00  
**Eguna** 26 asteazkena **Ordua** 18:00

**AGRUPACIONES  
ELKARTEAK**

**DEUSTO-SAN IGNACIO** Junta Batzarde  
 Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto  
**Día** 11 martes **Hora** 19:30  
**Eguna** 11 asteartea **Ordua** 19:30

**ERMUA** Junta Batzarde  
 Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua  
**Día** 3 lunes **Hora** 19:30  
**Eguna** 3 astelehena **Ordua** 19:30

**MUNGIALDEA** Comisión Komisio  
 Atxurizubi, 12 - Mungia  
**Día** 11 martes **Hora** 20:00  
**Eguna** 11 asteartea **Ordua** 20:00

**SANTURTZI** Comisión Komisio  
 Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi  
**Día** 26 miércoles **Hora** 19:00  
**Eguna** 26 asteazkena **Ordua** 19:00

**FORMACIÓN FAMILIAR  
FAMILIEN PRESTAKUNTZA**
**TALLERES SOBRE AFECTIVIDAD Y SEXUALIDAD**

Imparte: Joserra Landarroitajauregi ematen du.

**AFEKTIBITATE ETA SEXUALITATEARI BURUZKO TAILERRAK**
**FAMILIAS DE PERSONAS ADULTAS**
**HELDUETAKO FAMILIAK**

Bolunta - c/ Ronda frente nº 5. Bilbao  
**Día** 27 jueves **Hora** 18:00  
**Eguna** 27 osteguna **Ordua** 18:00

**FAMILIAS DE JÓVENES Y ADOLESCENTES**
**GAZTE ETA NERABEETAKO FAMILIAK**

Bolunta - Ldo. Poza, 14-2° - Bilbao  
**Día** 28 viernes **Hora** 18:00  
**Eguna** 28 ostirala **Ordua** 18:00

más en...  
[www.gorabide.com/agenda](http://www.gorabide.com/agenda)  
 ...gehiago